SANTURTZIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI
2022 OTS. FEB. 18
Sarrera-Entrada 03.497
Irteera-Salida

# GERRAKO UMEEN EBAKUAZIOAREN 85. URTEURRENAREN HARIRA EGINDAKO ADIERAZPENA

1937ko maiatzaren 6a eta ekainaren 16a bitartean, Gerra Zibila gori-gori zegoela, orduko Eusko Jaularitza milaka euskal ume itsasontziz ebakuatu zituen bonbardaketa frankista eta gerraren izugarrikerietatik babestu nahian. Umeok ebakuatzeko portu nagusietako bat herrian dugu, Santurtzin. 1937ko maiatzaren 21ean bertotik abiatu baitziren 4.000 bat ume Habana Baporean, eta beste 4.500 ekainaren 13an, Bilbo erori baino egun batzuk lehenago. Aurten, 2022an, gertakizun lazgarri horien 85. urteurrena beteko da.

Ume haiek Frantzian, Erresuma Batuan, Sobiet Batasunean, Belgikan eta Danimarkan hartu zituzten harreran. Printzipioz hilabete gutxi ematekoak ziren han, gerra amaitu arte hain zuzen. Baina kasu askotan urte luzeak eman zituzten familiengandik banatuta, zenbait kasutan betiko, gurasoak gerran hil zirelako edo

# DECLARACIÓN CON MOTIVO DEL 85 ANIVERSARIO DE LA EVACUACIÓN DE LOS 'NIÑOS DE LA GUERRA'

Entre el 6 de mayo y el 16 de junio de 1937, en plena Guerra Civil, miles de niñas y niños vascos fueron evacuados en barco fuera de Euskadi por el Gobierno Vasco para ponerles a resguardo de los bombardeos franquistas y los horrores de la guerra. Uno de los principales puertos de evacuación de estos menores fue el de Santurtzi, desde donde salieron, a bordo del Vapor Habana, cerca de 4.000 el 21 de mayo de 1937, y otros 4.500 el 13 de junio, pocos días antes de la caída de Bilbao. Este año 2022 se cumple el 85 aniversario de dichos sucesos.

Estas niñas y niños fueron acogidos en países como Francia, Reino Unido, la URSS, Bélgica o Dinamarca, donde debían permanecer en principio unos meses, hasta el fin de la contienda. Sin embargo, en muchos casos, la realidad les apartó durante años de sus familias, en ocasiones, incluso de forma definitiva,

etxeko egoera hain zelako gogorra ezen seguruagoa zen etxera ez bueltatzea.

Erbesteratutako gazte haiek ezin hobeto irudikatzen dituzte gerren eta gatazken izugarrikeria eta irrazionaltasuna. Familian eta beste ume batzuekin batera ikasten eta jolasten egon beharko zuketen arren, etxekoengandik banatu, eta norabide ezezaguna hartu behar izan zuten heriotzaren eta zorigaitzaren atzaparretatik ihesean, senideak berriro ikusiko zituzten jakin gabe.

Ume haiekiko omenalditik haratago, euren erbestea gogoan izatea, ez ahaztea eta belaunaldi berriei ezagutaraztea memoria- eta duintasun-ariketa da, gizarte gisa ezinbestez egin behar duguna. Gai izan behar dugu gerrek eragiten duten izugarrikeria ez ahazteko eta aintzat hartzeko gatazka armatuen ondorioz euren bizia, senideena edo haurtzaroa bera demokrazia eta askatasuna defendatzen galdu zutenen sakrifizioa.

bien porque sus progenitores fallecieron en la guerra, o bien porque la situación en sus casas era tan extremadamente dura que no se aconsejaba su vuelta.

Aquellos pequeños exiliados representan, de forma inmejorable, el horror y la irracionalidad de las guerras y de los conflictos. Niñas y niños que deberían estar junto a familias, educándose y jugando junto a otros, se vieron obligados a separarse de sus seres queridos y partir a destinos inciertos, sin la seguridad de saber si volverían a ver a sus familiares, huyendo de la muerte y la desgracia.

Recordar su exilio, no olvidarlo, y darlo a conocer a las nuevas generaciones no es sólo un homenaje absolutamente necesario a estas personas, sino también un ejercicio de memoria y de dignidad que debemos afrontar como sociedad. Debemos ser capaces de no olvidar los horrores que provocan las guerras y el sacrificio de todas las personas que perdieron su vida defendiendo la democracia y la libertad, la de sus seres queridos o su infancia, fruto de los conflictos armados.

Adierazitako arrazoi horiek guztiak direla eta, Santurtziko EAJ-PNV, PSE-PSOE, EHBILDU eta ELKARREKIN PODEMOS udal taldeok gogo onez hartzen dugu Bizkaiko Gazte Sozialistek egindako proposamena; eta bera oinarri hartuta, honako deklarazio instituzional hau ematen dugu aditzera:

- Santurtziko Udalak erabaki du Euskal ume erbesteratuei omenaldia egitea, zeinean aldi berean, demokrazia, askatasuna, bakea, memoria eta indarkeria eza aldarrikatuko diren.

- Santurtziko Udalak erabaki du eman beharreko urratsak ematea arrantza portuaren inguruan eskultura iraunkor, ikusgarri eta identifikatzeko moduko bat jartzeko 1937an Euskadiko Legezko Gobernuak ebakuatutako milaka umeen omenez, inoiz ahaztu ez ditzagun.

Por todas estas razones expuestas, los grupos municipales de EAJ-PNV, PSE-EE/PSOE, EH-BILDU Y ELKARREKIN PODEMOS representados en el Ayuntamiento de Santurtzi, acogemos en buen grado la propuesta realizada por las Juventudes Socialistas de Bizkaia, Y tomando como base la misma, acordamos la siguiente declaración institucional:

- El Ayuntamiento de Santurtzi acuerda rendir un homenaje a las niñas y niños vascos exiliados en el que al mismo tiempo reivindique la democracia, la libertad, la paz, la memoria y la no violencia.

- El Ayuntamiento de Santurtzi acuerda dar los pasos necesarios para la instalación de una escultura permanente, visible y reconocible en el entorno del Puerto Pesquero, en recuerdo y memoria de los miles de niños y niñas evacuados por el legítimo Gobierno de Euskadi en 1937.

SANTURTZI
udala · ayuntamiento

Stz

- SANTURTZIKO UDALAk erabaki du monumentua 2022an jartzea eta inauguratzea, ahal dela, 85. urteurrena gogoan hartzeko ekitaldia egiten den egunetik gertu, hau da, 2022ko maiatzean edo ekainean.

- EL AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI ACUERDA Que la instalación del monumento y su inauguración se lleven a cabo A LO LARGO DEL 2022, Y a poder ser, lo más cerca posible de la fecha de conmemoración del 85 aniversario de las evacuaciones mencionadas (mayo-junio de 2022).

Santurtzin, 2022ko otsailaren 18an
En Santurtzi, a 18 de febrero de 2022

| Joseba Ramos<br>EAJ-PNV | Juan Andrades<br>PSE-EE-PSOE | Miren Matanzas<br>EHBildu<br>Bere ordez | Ainhoa Lopera<br>Elkarrekin Podemos |
|---|---|---|---|

Aintzane Urkijo
Santurtziko Alkatea / Alcaldesa de Santurtzi